

**ZIFREN ETA DATUEN TXOSTENA,
VITORIA-GASTEIZKO UDALAK
INDAKERIA MATXISTAREN INGURUAN
KONTU EMAN DEZAN
2019ko urtarriletik abendura**

**VITORIA-GASTEIZKO UDALAK INDARKERIA
MATXISTAREN AURREAN JENDAURREKO ERANTZUNA
EMATEKO PROTOKOLOA**



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

SARRERA

Vitoria-Gasteizko Udalak Indarkeria Matxistaren Aurrean Jendaurreko Erantzuna Emateko Protokoloan (2018) jasotzen den moduan, jendaurrean aurkeztuko ditugu Vitoria-Gasteizko Udalak¹ indarkeria matxistaren arloko arretaren inguruan bildu dituen datuak, Protokoloa aktibatua zein ez.

Estatistika orokorrak emateaz gain, informazioaren jarraipena egitea eta kontrastatzea erraztuko duen tresna praktikoa izan nahi du txosten honek. Halaber, ahulguneak eta indarguneak identifikatzea ahalbidetuko du, hobekuntza-lerroak finkatze aldera, eta informazio erkatua emango du, bai konparaziozko azterketak egiteko, bai herritarrei komunikabideetan gehien agertutako kasuez haraindi informazioa emateko; hau da, zifren eta datuen kontakizun bateratu eta erkatua egitea da asmoa. Era berean, indarkeria matxistaren errealitatean sakondu ahal izateko moduko tresnak erantsi nahi dizkiogu txostenari, indarkeria matxistaren errealitatea irudika dezagun, esku artean ditugun datuetatik eta zifretatik harago. Hots, banakako kasuen gaineko informazio zehatzetik harago joango den analisisian zentratu nahi da indarkeria matxistaren problematikaren analisia.

Nabarmendu beharra dago ezen, txosten honetan, Udalak artatuko edo erregistratutako kasuak bakarrik jasotzen direla, hortaz, indarkeria matxistaren portzentaje bat baino ez du erakusten. Beraz, txosten honetan ez da biltzen Vitoria-Gasteizko errealitatearen erradiografia oso bat; administrazio publikoetara heltzen ez diren kasuak falta dira, eta horiek biltzea da, hain zuzen ere, aurrean dugun erroka nagusietako bat.

Txostena egiteko, Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailaren eta Herritarren Segurtasunerako Sailaren datuak erabili dira, jendaurreko erantzuna emateko protokoloak zehazten duen eran. Informazioa biltzeko udal-sistemen arabera zehaztutako aldagaiak² erabili dira; horrela, datuak baliagarriak dira, orobat, hala informazioa nola horren analisia hobeto sistematizatzeko.

Hortaz, zifrak eta datuak aztertzeaz gain, indarkeriaren eta horren inpaktuaren arloko politika publikoak hobetzeko neurriak garatzeko konpromisoa hartu du udalak. Oraingo honetan, txostenaren amaieran jaso dira udalak indarkeria matxistaren arloan egiten duen esku-hartzea hobetzeko aztertuko diren zenbait kontu³.

1 Gaur egun, Vitoria-Gasteizko Udalak ez dauka beste erakunde batzuen informazio espezifikorik, indarkeria matxistari buruzko datuei dagokienez. Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak eta Herritarren Segurtasunerako Sailak bildu dute informazioa, Udaltzaingoaren, Alkatetzaren eta Berdintasunerako Zerbitzuaren bidez.

2 Hitzez hitz mantendu dira aldagaiak eta adierazleak, programa informatikoetan agertzen den bezala.

3 Protokoloaren funtzionamenduari buruzko eta kontu emateko txostenaren aldagaiei buruzko informazio gehiago izateko, udalaren webean kontsultatu daiteke dokumentu osoa: <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/48/26/74826.pdf>

Azkenik, aurtengo txostenean, honako gai honi buruzko informazioa jaso dugu: indarkeria matxistaren egoera COVID-19aren pandemiak ekarri duen alarma-egoeran eta konfinamenduan.

INDARKERIA MATXISTAREN AURREAN JENDAURREKO ERANTZUNA EMATEKO PROTOKOLOAREN AKTIBAZIOA

2019. urtean, Vitoria-Gasteizko Udalak hiru aldiz aktibatu du **Indarkeria Matxistaren Aurrean Jendaurreko Erantzuna Emateko Protokoloa**, lau kasu zirela-medio. Kasu guztiak gertatu ziren Andre Mari Zuriaren jaietan: bat, sexu-erasoagatik eta beste hirurak sexu-abusuagatik. Haietako batean eraso fisikoa izan zen. Gainera, bosgarren kasu bat hartu zen aintzat, baina gero ez zen protokoloa aktibatu, indarkeria matxistaren eremutik at zegoelako; edonola ere, mugimendu feministak deialdia egin zuen orduko hartan ere.

2019an, Vitoria-Gasteizen ez dute inor hil indarkeria matxistaren ondorioz.

Hurrengo ataletan, datu kuantitatiboak bildu ditugu, eta taldeka sailkatu, bi faktore hauek kontuan hartuta: 2019an indarkeria matxista jasan duten eta udal zerbitzuetan artatu dituzten emakumeen ezaugarri espezifikoak eta erasotzaileen ezaugarri espezifikoak.

INDARKERIA MATXISTA DELA-ETA ARTATU DITUZTEN EMAKUMEAK ETA LGTBI KOMUNITATEKO PERTSONAK

Ez dago ez biktimen, ez kaltegileen profil zehatzik; hala eta guztiz ere, atal honetan datu orokor batzuk erakutsiko ditugu, aukera ematen baitigute ikuspegi panoramiko bat egiteko eta, horren bidez, egoerak identifikatzeko, informazio-bilketako sistemak egokitzeko eta arreta-zerbitzuen nahiz -baliabideen jarraipena egiteko, bai eta prebentziorako eta sentsibilizaziorako politika publikoen jarraipena egiteko ere.

Gizarte Politika eta Osasun Publikoaren Sailak eta Udaltzaingoak emandako datuen arabera, **2019. urtean, genero-indarkeria⁴ dela-eta 737 emakume artatu dituzte udaleko Gizarte Zerbitzuetan edo Udaltzaingoaren zerbitzuan, eginbideekin**. Horien artean:

- 2019. urtean 562 emakume artatu dituzte udaleko Gizarte Zerbitzuetan, eta ez dute eginbiderik abiatu Udaltzaingoan genero-indarkeriagatik.
- Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzten emakumeen artean, 2019. urtean, 48 emakumek eginbideak abiatu dituzte Udaltzaingoan, genero-indarkeriagatik.

⁴ Gizarte Politika sailaren arabera, genero-indarkeria da emakumearen ongizateari kalte egiten dion eta berariaz egiten den tratatu txar fisikoa, emozionala/psikologikoa, sexuala, materiala/ekonomikoa, esplotazio sexuala, sexu-erasoa eta sexu-jazarpena.

- 2019. urtean Udaltzaingoan eginbideak abiatu dituzten emakumeen artean, 127 emakume ez dituzte artatu udaleko Gizarte Zerbitzuetan.
- Hala, udaleko Gizarte Zerbitzuetan 610 emakume artatu dituzte eta Udaltzaingoan, berriz, 175 emakumek abiatu dituzte eginbideak.
- Gainera, 2019. urtean, Udaltzaingoan hiru salaketa jarri dira gorroto-delitu gisa sailkatutako gertaerengatik eta, horien artean, bik osagai homofoboak dituzte.

LGTBI komunitateko pertsonen dagokienean, kontuan hartu behar da ezen, lehen problematika hori ez den arren, sexu-orientazioa eta genero-identitatea alderdi garrantzitsuak izan daitezkeela arreta planifikatzeko orduan. Gaur egungo errealitateari erantzuteko, arreta-protokoloa eguneratzeko prozesuari jakinarazi zaio premiazkoa dela prozedura eta erregistro-tresnak berrikustea.

Bestalde, Vitoria-Gasteizko Udalak, Berdintasun Zerbitzuaren bitartez, elkarlan-hitzarmen bat sinatu zuen 2019an, Lumagorri ZAT elkartearekin batera: hitzarmen horren bidez, martxan jarri dute Ikusgune⁵, Gasteizko LGTBI+ Behatokia, homofobiaren, lesbofobiaren, bifobiaren eta transfobiaren aurkako behaketa iraunkorra egiteko.

Ikusgunek, hiriko elkarteekin batera lan eginez, datuak biltzen ditu, eta kontzientzia hartzeko neurriak sustatzen, hartara salaketa soziala hauspotzeko; horrez gainera, salaketa judizialak egiten ditu, eta bestelako bideak ere bilatzen ditu, posible baldin bada, erreparazioa emateko sexu-orientazioarengatik edo genero-identitatearengatik eskubideak urratu zaizkien pertsonen.

Hau eskaintzen dute:

- LGTBIfobiaren egoerari buruzko datuak biltzen eta eguneratzen dituzte.
- Eraso egin zaien pertsonen laguntzen diete.
- Ekintzak koordinatzen dituzte beste eragile batzuekin.
- LGTBI pertsonen aurkako indarkeria deuseztatzeko lan egiten dute.

2017. urteaz geroztik, Ikusgunek «Gasteizen sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen

aurka izandako gertakariei buruzko txostena» egiten du, eta bertan biltzen eta sistematizatzen dituzte gaiaren harira izandako datuak. Ondorioz, 2019ko datuak

⁵ <https://ikusgune.eus/>

aztertzeke, bi txosten hauetara jo daiteke: 2018ko apiriletik 2019ko apirilera egindako txostena⁶ eta 2019ko maiatzetik 2020ko maiatzera egindako txostena⁷.

2018-2019 eta 2019-2020 urteetan Ikusgunek egin dituen txostenetan biltzen denez, 25 eraso izan dira LGTBI pertsonen aurkako diskriminazioarekin lotuta.

INDARKERIA MATXISTA DELA-ETA UDALEKO ZERBITZU PUBLIKOETARA JO DUTEN EMAKUMEEN ETA LGTBI PERTSONEN EZAUGARRIAK

Taula honetan azaldu dugu zer adin duten 2019. urtean udaleko zerbitzuren batean artatu dituzten **emakumeek**.

ADIN-TARTEA		
18 urtetik behera	16 emakume	% 2,2
18-30 urte bitarte	150 emakume	% 20,3
31-40 urte bitarte	242 emakume	% 32,8
41-60 urte bitarte	276 emakume	% 37,4
60 urtetik gora	53 emakume	% 7,2
GUZTIRA	737 emakume	% 100

Erregistratu diren datuen arabera, **31 eta 60 urte bitartekoak** dira indarkeria-egoerak bizi izan dituzten **emakumeen % 70,2**. Era berean, nabarmentzekoa da 18 eta 30 urte dituzten emakumeen artean indarkeria jasan dutenen portzentajea.

Bestalde, 18 urtetik beherako emakumeak eta 60 urtetik gorako emakumeak dira udal zerbitzuetan gutxien artatu dituztenak.

Jarraian, taula honetan azalduko dugu zer **herritartasun** duten indarkeria jasan duten eta udal zerbitzuetako batera jo duten **emakumeek**; herritartasunak taldeka banatu ditugu:

HERRITARTASUNA TALDEKA		
Espainia	409	% 55,5
Hego Amerika	152	% 19,5
Afrikako iparraldea	94	% 12,7
Afrika (iparraldea izan ezik)	44	% 5,9

6 <https://ikusgune.eus/files/2019/12/osig-2018-2019-gasteiz-eusk.pdf>

7 <https://ikusgune.eus/files/2020/05/informea-euskaraz.pdf>

Europa (gainerakoa)	24	% 3,2
Asia	6	% 0,8
Europar Batasuna	8	% 1,08
GUZTIRA	737	% 100

Indarkeria jasan eta udaleko zerbitzuren batera jo duten emakumeen erdiak baino gehiagok herritartasun espainiarra dute; haien atzetik, Hego Amerikako edo Afrika iparraldeko emakumeak dira gehien joan direnak, baina askoz ehuneko txikiagoan.

Asiako herrialdeetako emakumeak dira zerbitzu publikoetan gutxien artatu dituztenak.

GIZARTE POLITIKA SAILAK ARTATU DITUEN EMAKUMEEI ETA LGTBI PERTSONEI BURUZKO INFORMAZIOA

Atala honetan, Gizarte Politikako Sailean artatu dituzten 610 emakumeen ezaugarriei buruzko datuak eskainiko ditugu; batzuek eginbideak abiatu dituzte polizian, beste batzuek ez, baina denak artatu dituzte Gizarte Politikako Sailean.

Honako hauek dira datuak, 2019. urtean polizian **eginbideak** abiatu dituzten eta ez dituzten emakumeei dagozkienak, haien **adina** kontuan hartuta:

ADIN TARTEA	EGINBIDERIK EZ 2019. URTEA	EGINBIDEAK BAI 2019.URTEA	GUZTIRA
13tik 17ra	8	--	8
18tik 22ra	16	2	18
23tik 30era	66	17	83
31tik 45era	293	22	315
46tik 64ra	136	6	142
65etik 84ra	38	1	39
85 eta hortik gora	5	--	5
GUZTIRA	562	48	610

Gizarte Politika Sailean artatu dituzten 610 emakumeen artean, gehienek (% 92,1) ez dute eginbiderik abiatu 2019. urtean. 31 eta 64 urte bitarte dituzten eta eginbiderik abiatu ez duten emakumeak dira nagusi.

Bestalde, eginbideak abiatu dituzten 48 emakumeen artean, % 57,45ek 23 eta 45 urte bitarte ditu.

Artatutako emakumeen **taldekako herritartasunaren** aldagaia hartzen badugu, eta 2019. urtean **eginbiderik** abiatu duten edo eransten badiogu, hauek dira datuak:

TALDEKAKO HERRITARTASUN A	EGINBIDERIK EZ 2019. URTEA	EGINBIDEA BAI 2019. URTEA	GUZTIRA
Espainia	304	25	329
Hego Amerika	96	11	107
Magreb	77	8	85
Afrika (Magreb ezik)	39	--	39
Europa	22	1	23
Erdiko Amerika	19	1	20
Asia	4	2	6
Beste batzuk	1	--	1
GUZTIRA	562	48	610

Eginbideak abiatu zein ez, herritartasun espainiarra duten emakumeak eta Hego Amerikako emakumeak dira nagusi.

Taula honetan agertzen da artatutako emakumeak zer-familia motan bizi diren.

FAMILIA-MOTA	EGINBIDEAK BAI 2019. URTEA	EGINBIDERIK EZ 2019.URTEA	EMAKU MEAK GUZTIRA A
Guraso bakarrekoa	15	195	210
Nuklearra, adin txikikoekin	19	156	175
Pertsona bakarrekoa	9	128	137
Nuklearra, adin txikokorik gabe	2	40	42
Hedatua, ahaidetasun-harremanarekin	3	25	28
Beste batzuk	--	18	18
Guztira	48	562	610

Artatu diren emakumeen artean, guraso bakarreko familiak dira nagusi (% 34,4); ondoren, familia nuklearretan eta adin txikikoekin bizi direnak (% 28,7), eta, azkenik, pertsona bakarreko etxeetan bizi diren emakumeak (%22,4).

2019. urtean eginbideak abiatu dituzten emakumeen artean, % 39,4 familia nuklearretan bizi dira, adin txikikoekin.

Kontrara, eginbiderik abiatu ez duten emakumeen artean, gehienak (% 34,7) guraso bakarreko familietan bizi dira; jarraian, % 27,7 familia nuklearretan bizi dira, adin txikikoekin.

Adin txikiko seme-alabekin bizitzeari dagokienean, Sailak artatu dituen emakumeen % 65,2k adin txikiko seme-alabak dituzte.

ADIN TXIKIKO SEME-ALABAK DITUZTENAK	EGINBIDEAK BAI 2019. URTEA	EGINBIDERIK EZ 2019.URTEA	EMAKUM EAK GUZTIRA
Ez	11	201	212
Bai	37	361	398
Guztira	48	562	610

2019. urtean eginbideak abiatu dituzten 48 emakumeen artean, % 77,1ek dituzte adin txikiko seme-alabak; eginbiderik abiatu ez dutenen artean, berriz, % 64,2k dituzte adin txikiko seme-alabak.

Familia horietan, denera, **716 adin txikiko** daude, **adin-tarte** hauetan banatuta:

	0-2 URTE	3-5 URTE	6-12 URTE	13-17 URTE	GUZTI RA
EZ eginbideak 2019	70	123	287	171	651
BAI eginbideak 2019	15	15	25	10	65
GUZTIRA	85	138	312	181	716

Sailak artatu dituen familietan bizi diren adin txikikoen % 43,6k 6 eta 12 urte bitarte dituzte.

Horien artean, % 90,9 eginbiderik abiatu ez den etxeetan bizi dira.

Taula honetan azaltzen dugu zer **baliabide edo zerbitzuren bidez lagundu dien Gizarte Politika Sailak emakumeei:**

	EGINBIDEAK BAI 2019. URTEA	EGINBIDERIK EZ 2019. URTEA	GUZTIRA
Oinarrizko gizarte-zerb.	38	450	488
Onarpen	7	58	65
Haurrak eta familia	2	43	45
Gainerako gizarteratzea	1	7	8
Adinekoak	--	4	4
GUZTIRA	48	562	610

Artatu diren emakumeen artean, % 80 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen bidez artatu dituzte, eta, haien artean, % 92,2k ez du eginbiderik abiatu 2019an.

Era berean, eginbideak abiatu dituzten emakumeen artean, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak % 79,2 artatu ditu.

Saileko zerbitzu eta baliabideen bitartez artatu dituzten emakumeen % 60,3k genero-indarkeriarekin lotutako arazoak izan zituen 2019. urtearen aurretik. Herritartasun espainiarra duten emakumeen artean, % 57,7 izan dira, Hego Amerikako herrialdeetako emakumeen kasuan, % 55,1; Afrikako (Magreb izan ezik) emakumeen artean, % 66,7, eta Magrebeko emakumeen artean, azkenik, % 69,4.

Familia-motari dagokionean, % 34,4 guraso bakarreko etxetan bizi da, % 28,7 familia nuklearretan, adin txikikoekin, eta % 22,4 pertsona bakarreko etxeetan.

Erregistratutako kasuen artean, etxe hedatuetan eta ahaidetasun-harremanarekin bizi diren emakumeak izan dira gutxien: Sailean artatu dituzten emakumeen % 4,6 eskas.

Sailean artatu dituzten emakumeen artean, gehienak, % 80, Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzte, eta, horien artean, % 58,2k genero-indarkeriarekin lotutako arazoak izan zituen 2019a baino lehen.

Adinekoen eta bazterkeria-arriskuan dauden pertsonen zerbitzuan, oso emakume gutxi artatu dituzte indarkeria matxista dela-eta (% 2 bakarrik), eta datu deigarria da.

Azkenik, taula honetan bildu ditugu 610 emakume hauek **gaur egun dituzten arazoak**, genero-indarkeriaren baitan. Kontuan hartu behar da emakumeek gisa honetako arazo bat baino gehiago izan dezaketela, horregatik, arazo-kopurua handiagoa da emakume-kopurua baino:

ARAZOA	KASU BERRIA	EZ BERRIA	GUZTI RA
Emakumearen aurkako tratu txar emozional/psikologikoa	164	235	399
Bikotekideak emakumeari emandako tratu txar fisikoa	105	145	250
Bikotekideak emakumeari emandako tratu material/ekonomikoa	26	34	60
Bikotekide ohiak emakumeari emandako tratu txar psikologikoa	23	33	56
Segurtasun-indarrek baloratutako arrisku-egoera	10	29	39
Bikotekide ohiak emakumeari emandako tratu txar fisikoa	10	9	19
Bikotekideak emakumeari emandako tratu txar sexuala	10	6	16
Genero-indarkeria duten harreman sentimental errepikatuak	8	8	16
Bikotetik kanpoko sexu-erasoa	3	10	13
Bizikidetzat berritua hastea, genero-indarkeria egonda	5	6	11
Sexu-jazarpena eta larderia emakumeari lanean eta beste toki batzuetan	3	1	4
Adin nagusiko seme-alabek amei ezarritako indarkeria, genero-desberdinkeriatatik	1	2	3
GUZTIRA	242	368	610

Sailean artatu dituzten emakumeen artean, indarkeria-mota ohikoena tratu txar emozional/psikologikoa da (%65,4); bigarrena, berriz, tratu txar fisikoa (% 41, gutxi gorabehera).

Bestalde, tratu txar emozional/psikologikoa jasan duten emakumeen artean, % 50 dira kasu berriak; eta tratu txar fisikoa jasan duten emakumeen artean, berriz, % 58.

Gainera, 610 emakume horiek **bestelako arazo pertsonal** erantsiak dituzte, genero-indarkeriaren arazoa gainera. Hauek dira:

ARAZO ERANTSIK (genero-indarkeriaz gainera)	KASU BERRIA	EZ KASU BERRIA	GUZTIRA
Laneratzeko zailtasunak	97	245	342
Desoreka psiko-afektiboa ⁸	55	94	149
Etxebizitza-arazoak ⁹	27	92	119
Bitarteko pertsonalak	28	84	112
Gizarteratzeko zailtasunak	37	71	108
Osasuna	21	45	66
Haurren eta nerabeen babesgabetasuna	22	30	52
Etxebizitza-arazoak	17	21	38
Norberaren autonomiaren muga	10	13	23
Bakardadea/isolamendua	10	11	21
Etxeko indarkeria	4	3	7
Eskolaratzeko zailtasunak	--	4	4
Tratu desagokia edo tratu txarrak adinekoei edo mendekoei	1	--	1
GUZTIRA	242	368	610

Indarkeria jasaten duten emakumeen artean, erdiak baino gehiagok, % 56,1, laneratzeko zailtasunak dituzte.

% 24,4k desoreka psiko-afektiboak dituzte, % 19,5ek etxebizitzako arazoak, % 18,4k baliabide pertsonalen arazoak dituzte eta % 17,7k gizarteratzeko zailtasunak dituzte.

Gainerako arazo pertsonal erantsiak neurri nabarmen txikiagoan gertatzen dira.

Bestalde, bizikidetzaren unitateari eragiten dioten arazo erantsiak ere erregistratu daitezke espedienteetan (familia-arazoak). Ildo horretan, aipatu behar da arazo ekonomikoak bizikidetzaren unitateen %66,9ri eragiten diela (408 emakume).

Orokorrean, gehiago dira arazo erantsiak dituzten kasu berriak, kasu zaharrak baino.

Laneratzeko zailtasunak dituzten emakumeen artean, kasu berriak dira % 71,6; desoreka psiko-afektiboak dituztenen artean, berriz, % 63,1; etxebizitzako arazoak dituztenen artean, % 77,3 eta, azkenik, baliabide pertsonaletan arazoak dituztenen artean, %75.

⁸ Jarrera psiko-afektibo desorekatuen multzo bat da, adibidez, jarrera bortitzak, autoestimu-arazoak, aldarteari lotutako arazoak, elikadura-arazoak, bulkadak kontrolatzeko arazoak...

⁹ Egoera hauetan familiaren mardura kaltetzen da, kide bat ez dagoelako, alderdietako bat ez delako gai edo harremanean gatazka agerikoak daudelako.

UDALTZAINGOAK ARTATU DITUEN EMAKUMEEI ETA LGTBI PERTSONEI BURUZKO INFORMAZIOA, ETA ERASOTZAILLEI BURUZKOA:

Vitoria-Gasteizko Udaltzaingoak 208 biktima artatu ditu 2019an, eginbideak irekiz genero-indarkeriako delituengatik edo pertsonaren sexu-askatasun eta -osotasunaren aurkako delituengatik¹⁰. 208 biktima horien artean, 175 biktimak genero-indarkeriari lotutako delituak jasan dituzte; guztira, 183 eginbide abiatu dira horren harira. Bestalde, sexu-askatasunaren eta -osotasunaren aurkako delituetan, 33 biktima izan dira, eta 27 delitu erregistratu dira.

Genero-indarkeria delituak:

2019. urtean, eta 2018arekin alderatuta, % 10,24 hazi da genero-indarkeriaren arloko delitu-kopurua.

HILABETEA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Urtarrila	11	12	% 9,09
Otsaila	16	18	% 12,50
Martxoa	10	11	% 10,00
Apirila	7	10	% 42,86
Maiatza	11	11	% 0,00
Ekaina	11	17	% 54,55
Uztaila	15	20	% 33,33
Abuztua	19	16	% -15,79
Iraila	20	17	% -15,00
Urria	15	25	% 66,67

10 Sexu-osotasunaren terminoa, batez ere, adin txikikoei eragiten dieten sexu-delituei buruz aritzeko erabiltzen da.


Azaroa	19	15	% -21,05
Abendua	12	11	% -8,33
GUZTIRA	166	183	% 10,24

Genero-indarkeria motari erreparatuta, hauek dira konparatibak:

GENERO-INDARKERIA MOTA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Ohiko indarkeria fisikoa, bikotekidearen aldetik	79	72	% -8,86
Ohiko indarkeria psikikoa, bikotekidearen aldetik	41	52	% 26,83
Ezohiko indarkeria fisikoa, bikotekidearen aldetik	42	53	% 26,19
Ezohiko indarkeria psikikoa, bikotekidearen aldetik	4	6	% 50,00

Gehien agertzen den indarkeria-mota, hauxe da: ohiko indarkeria fisikoa; hala ere, 2018an baino txikiagoa izan da. Beste indarkeria-motak hazi egin dira.

Grafiko honetan adierazten dira urte bakoitzean izan diren genero-indarkeria moten ehunekoak.



**GRAFIKOAREN ITZULPENA/TRADUCCIÓN GRÁFICO
GENERO-INDARKERIA MOTEI DAGOZKIEN PORTZENTAJEAK**

2018. urtea: Barruko zirkulua

2019. urtea: Kanpoko zirkulua

Ezohiko indarkeria fisikoa; Ohiko indarkeria fisikoa, bikotekidearen aldetik; Ohiko indarkeria psikikoa; Ezohiko indarkeria psikikoa

Taula hauetan, biak aztertzen dira: hala genero-indarkeriaren biktimen nola erasotzaileen ezaugarriak.

Adinari erreparatuta, hauek dira **emakumeen** datuak:

BIKTIMEN ADIN-TARTEAK	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
18 urtetik behera	11	8	% -27,27
18-30 urte bitarte	54	67	% 24,07
31-40 urte bitarte	51	53	% 3,92
40-60 urte bitarte	38	42	% 10,53

60 urtetik gora	2	5	% 150,00
GUZTIRA	156	175	% 12,18

Udaltzaingoak artatutako emakumeen artean, emakume gehienak 18 eta 40 urte bitartekoak dira bai 2018an bai 2019an. 2019an, artatutako emakume guztien % 68,6 izan ziren.

2018ko datuekin alderatuta, 60 urtetik gorako emakumeen kasuak hazi dira gehien: 2018an bi kasu izan ziren, eta 2019an, berriz, bost.

Indarkeria jasan duten **emakumeen taldekako herritartasuna** kontuan hartuta, hauek dira datuak:

BIKTIMEN HERRITARTASUNA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Espainia	90	106	% 17,78
Hego Amerika	36	36	% 0,00%
Afrika (iparraldea izan ezik)	7	5	% -28,57
Europar Batasuna	2	6	% 200,00%
Gainerako Europa	6	3	% -50,00
Afrika iparraldea	13	17	% 30,77
Asia	2	2	% 0,00
GUZTIRA	156	175	

Udaltzaingoak artatu dituen emakumeen artean, gehienek herritartasun espainiarra dute: % 60,6. Ondoren, Hego Amerikako emakumeak dira ugarienak, ehuneko askoz txikiagoarekin: % 20,6.

Bestalde, 2018. urtearekin alderatuta, % 200 hazi da Europar Batasuneko herrialde batekoak diren baina Espainiakoak ez diren emakumeen kasuak.

Jarraian, indarkeria jasan duten eta Udaltzaingoan artatu dituzten **emakumeen etxebizitzari** lotutako datuak aurkeztuko ditugu:

BIKTIMEN ETXEBIZITZA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Vitoria-Gasteiz	141	167	% 18,44
Arabako beste leku batzuk	12	2	% -83,33
EAE eta Nafarroa	--	3	% 100,00
Espainiako beste leku batzuk	2	2	% 0,00
Ezezaguna	1	1	% 0,00

Artatu dituzten emakume gehienak Vitoria-Gasteizen bizi dira. Gainera, 2018arekin alderatuta, kopurua hazi egin da.

Jarraian, **erasotzaileen** ezaugarri batzuk bildu ditugu; lehenik eta behin, **adina**:

ERASOTZAILEEN TARTEAK	ADIN-	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
18 urtetik behera		10	4	% -60,00
18-30 urte bitarte		50	44	% -12,00
31-40 urte bitarte		46	59	% 28,26
40-60 urte bitarte		45	51	% 13,33
60 urtetik gora		5	5	% 0,00
GUZTIRA		156	163	% 4,49

Erasotzaile gehienek (% 67,5) 31 eta 60 urte bitarte dituzte; adin horretako erasotzaile kopurua, gainera, hazi egin da 2018tik 2019ra.

2018tik 2019ra gutxitu egin da 18 urtetik beherako erasotzaileen eta 18 eta 30 urte bitarte dituzten erasotzaileen kopurua, batez ere 18 urtetik beherakoena.

Hauek dira **erasotzaileen** taldekako **herritartasunari** dagozkion datuak:

ERASOTZAILEEN HERRITARTASUNA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Espainia	84	90	% 7,14
Hego Amerika	29	32	% 10,34
Afrika (iparraldea izan ezik)	6	9	% 50,00
Europar Batasuna	5	6	% 20,00
Europako beste herrialdeak	3	2	% -33,33
Afrikako iparraldea	24	23	% -4,17
Asia	4	1	% -75,00
Ipar Amerika	1	0	% -100,00

Erasotzaileen erdiak baino zertxobait gehiagok herritartasun espainiarra dute (% 55,2). Hego Amerikako herrialdeetako gizonak dira bigarren (% 19,6) eta Afrikako iparraldekoak hirugarren (% 14,1).

Bestalde, 2018arekin alderatuta, hazi egin da Afrikako beste herrialdeetako (iparraldekoak ez direnak) gizon erasotzaileen kopurua, nahiz eta, beste herritartasunekin konparatuta, ez dira talde gisa nabarmentzen.

ERASOTZAILEEN ETXEBIZITZA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Vitoria-Gasteiz	135	148	% 9,63
Arabako beste leku batzuk	12	8	% -33,33
EAE eta Nafarroa	4	1	% -75,00
Espainiako beste leku batzuk	4	2	% -50,00
Espainiatik kanpo	--	4	% 100,00
Ezezaguna	1	--	% -100,00

GUZTIRA	156	163	
----------------	------------	------------	--

Erasotzaile gehienak Vitoria-Gasteizen bizi dira: % 90,8. Ehunekoa hazi egin da 2018arekin alderatuta.

Sexu-askatasunaren aurkako delituak

Hona hemen sexu-askatasunaren aurka izan diren **delituen** datuak, **hilabeteen** arabera antolatuta:

HILABETEA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Urtarrila	2	2	% 0,00
Otsaila	3	4	% 33,33
Martxoa	1	1	% 0,00
Apirila	1	0	% -100,00
Maiatza	3	2	% -33,33
Ekaina	1	4	% 300,00
Uztaila	3	3	% 0,00
Abuztua	4	2	% -50,00
Iraila	4	0	% -100,00
Urria	2	1	% -50,00
Azaroa	5	3	% -40,00
Abendua	0	5	% 100,00
TOTAL	29	27	% -6,90

Udaltzaingoan erregistratu diren sexu-askatasunaren aurkako delituen kopurua % 6,90 murriztu da 2018. urtetik 2019ra.

Jarraian, hauek dira sexu-askatasunaren aurkako **delitu-motak**:

SEXU-ASKATASUNAREN AURKAKO DELITU-MOTAK	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
Sexu-erasoa	6	2	% -66,67%
Sexu-abusua	10	14	% 40,00

Sexu-askatasunaren aurkako delituekin lotutako salaketen artean, sexu-abusuari dagozkionak hazi egin dira.

Hona hemen zer **adin** duten sexu-askatasunaren aurkako delituak jasan dituzten **biktimek**:

BIKTIMEN ADIN-TARTEA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
18 urtetik behera	18	18	% 0,00
18-30 urte bitarte	7	9	% 28,57
31-40 urte bitarte	6	3	% -50,00
40-60 urte bitarte	3	3	% 0,00

60 urtetik gora	--	--	--
GUZTIRA	34	33	% -2,94

Gisa honetako indarkeria jasaten duten emakume gehienak (% 54,5) 18 urtetik beherakoak dira.

2018arekin alderatuta, pixka bat jaitsi da gisa horretako indarkeria jasan duten emakumeen kopurua (pertsonek bat gutxiago).

Hona hemen zer **adin** duten sexu-askatasunaren aurkako delituak egin dituzten **erasotzaileek**:

ERASOTZAILEEN ADIN-TARTEA	2018	2019	Igoera/jaitsiera portzentajea
18 urtetik behera	2	4	% 100,00
18-30 urte bitarte	5	2	% -60,00
31-40 urte bitarte	9	6	% -33,33
40-60 urte bitarte	5	6	% 20,00
60 urtetik gora	2	1	% -50,00

GUZTIRA	23	19	% -17,39
----------------	-----------	-----------	-----------------

2018arekin alderatuta, erasotzaileen kopurua murriztu egin da.

Bildu diren datuak kontuan hartuta, ez da joera garbirik agertzen gisa honetako delituak egiten dituzten erasotzaileen adinarekin lotuta.

2019an sexu-askatasunaren aurka egin diren **delituak** honako **toki** hauetan gertatu dira:

LEKU-MOTA	Kopurua
Bide publikoa	10
Etxebizitza-ataria	5
Etxebizitza	3
Internet bidez	3
Parkeak/Lorategiak	2
Eskola	2
Denda	1
Gizarte-zentroa	1
GUZTIRA	27

Delituen % 37 bide publikoan gertatu dira, eta % 18,5, berriz, etxebizitzaren atarian.

Gorrito-delituak

2019an, hiru salaketa jarri ziren Udaltzaingoan gorrito-delituengatik; horietako bi homofobotzat jo daitezke. Horietako bat Instagrameko argitalpen bat izan zen, eduki homofoboa zuena; bigarreanean, berriz, bizilagunek irain homofoboak egin zizkioten pertsona bati.

LABURBPENA

Gizarte Politika Saileko datuei erreparatuta, honako ondorio hauek atera ditugu:

- Indarkeria jasan duten emakumeen artean, 31 eta 60 urte bitarte dituzte % 70,2k.
- Indarkeria jasan duten emakumeen artean, herritartasun espainiarra dute % 55,5ek.
- Sailak artatu dituzten emakumeen artean, % 34,4 guraso bakarreko etxeetan bizi dira. Jarraian, emakumeen % 28,7 familia nuklearretan bizi dira, seme-alabekin.
- Sailean artatu dituzten emakumeen artean, % 65,2k adin txikikoak dituzten beren kargu.
- Artatu dituzten emakumeen artean, % 80 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzte.
- Artatu dituzten emakumeen artean, % 65,4k tratu txar emozional/psikologikoa jasan dute; jarraian, % 41ek tratu txar fisikoa jaso dute. Horien artean:
 - o % 61,5 kasu zaharrak dira.
 - o % 42,4 kasu berriak dira.
- Artatu dituzten emakumeen artean, % 56,1ek zailtasunak dituzte laneratzeko. Jarraian, % 24,4k desoreka psiko-emozionalak dituzte. Denak kontuan hartuta:
 - o % 69 kasu berriak dira.
 - o % 30,9 kasu zaharrak dira.
- Gizarte Politika Sailean artatu dituzten emakumeen artean, % 92,1ek ez du eginbiderik abiatu. Horien artean:
 - o % 73,3k 31 eta 64 urte bitarte dituzte.
 - o % 53,9k herritartasun espainiarra dauka.
 - o % 34,7 guraso bakarreko etxeetan bizi dira; jarraian, % 27,7 familia nuklearretan bizi dira, adin txikikoekin.
 - o % 64,2k familia bat osatzen dute adin txikikoekin.
 - o % 80,1 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzte.
- Eginbideak abiatu dituzten emakumeen artean (% 7,9):
 - o % 57,45ek 23 eta 45 urte bitarte dituzte.
 - o % 75ek herritartasun espainiarra dute edo Hego Amerikako herrialderen batekoak dira.
 - o % 39,6 familia nuklearretan bizi dira, adin txikikoekin.

- % 77,1ek familiak osatzen dituzte adin txikikoekin.
- % 79,2 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dituzte.
- Artatu dituzten emakumeen artean, % 60,3k gisa bereko arazoak izan zituen 2019a baino lehen. Horien artean:
 - % 46,3k 31 eta 45 urte bitarte dituzte.
 - % 57,4k herritartasun espainiarra dute.
 - % 65,7 guraso bakarreko etxeetan bizi da.
 - % 70,1ek adin txikoak ditu bere kargu.
 - % 77,7 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dute.
- Artatu dituzten emakumeen artean, % 36,3k ez dute gisa horretako arazorik izan 2019a baino lehen:
 - % 55,2k 31 eta 45 urte bitarte dituzte.
 - % 51,6k herritartasun espainiarra dute.
 - % 37,55 guraso bakarreko etxeetan bizi da.
 - % 57,8k adin txikoak ditu bere kargu.
 - % 84,1 Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan artatu dute.

Bestalde, **Udaltzaingoak** emandako datuak aztertuta, honako ondorioak ateratzen dira:

- Genero-indarkeria delituen artean, ohiko indarkeria fisikoa errepikatzen da gehien.
- Sexu-askatasunaren aurkako delituen artean, sexu-abusuak osatzen du kasuen % 51,85.
- Genero-indarkeriako delituak jasan dituzten 175 emakumeen artean, % 42k 30 urte baino gutxiago dituzte; % 30,3k 30 eta 40 urte bitarte dituzte. Beraz, delituen % 72,3 40 urtetik beherako emakumeei egin dizkiete. Gisa honetako delituen biktimen artean, % 60,6 autoktonoak dira.
- Sexu-askatasunaren kontrako delituak jasan dituzten biktimen artean, % 54,5 adin txikikoak dira.
- Sexu-identitateari edo -orientazioari lotutako gorroto-delituei dagokienean, ezinezkoa da ondoriorik ateratzea, izan ere, Udaltzaingoa bi salaketa baino ez dira jarri.

Beste alde batetik, ustezko erasotzaileen ezaugarri nagusiak direla-eta, hauek dira datuak:

- Genero-indarkeriako erasoak egin dituztenen artean, % 29,4k 30 urte baino gutxiago dute.
- Sexu-askatasunaren aurkako erasotzaileen kasuan, % 68k 30 urte baino gehiago ditu.
- Azpimarragarria da, sexu-askatasunaren aurkako erasotzaileen artean, lau adin txikikoak direla.
- Genero-indarkeriako erasoak egin dituztenen artean, % 55,2 autoktonoak dira, eta sexu-askatasunaren aurkako erasotzaileen artean, berriz, % 63,15 dira autoktonoak.
- Sexu-identitateari edo -orientazioari lotutako gorroto-delituei dagokienean, ezinezkoa da ondoriorik ateratzea erasotzaileen ezaugarriei buruz, izan ere, bi kasu bakarrik gertatu dira.

ALARMA-EGOERAK IRAUN BITARTEAN GERTATU DIREN GENERO-INDARKERIA KASUEI BURUZKO DATUAK (2020KO MARTXOAREN 15ETIK EKAINAREN 15ERA)

Txosten honetan 2019ko ekitaldiari dagozkion datuak bildu ditugun arren, beste atal bat gehitzea erabaki dugu: atal honetan, aztertu dugu nolakoa izan den indarkeria matxistaren egoera 2020ko urtean COVID-19aren krisiaren ondorioz ezarri zen alarma-egoerak eta konfinamenduak iraun duen bitartean.

Alarma-egoerak ekarritako konfinamendu-neurrien eta bestelako neurrien aurrean, Udala ohartu da gatazkak eta krisiak sortu zitezkeela eta zenbait egoera larritu zitezkeela adin txikikoen babesgabetasuna dela-eta, edo arriskuan egon zitezkeela indarkeria matxista jasan dezaketen emakumeak eta LGTBI pertsonak. Baliteke, beraz, derrigorrezko bizikidetzak arrisku larriak ekarri izana, edo tentsio-egoerak areagotu izana, eta, horrez gainera, indarkeria jasateko arrisku handiagoa sortu izana beren erasotzaileekin bizi diren edo bizi izan diren pertsonen; horregatik, ezinbestekoa iruditzen zaigu gertatu dena aztertzea.

Gainera, egoera honetan, beste modu batera antolatu behar izan dira zerbitzuak eta baliabideak, alarma-egoerak agindutako osasun-neurriak betez, indarkeria matxista jasaten duten biktimei arreta ematen jarraitzeko xedearekin.

Hortaz, analisi honetan, 2020ko martxoaren 15etik ekainaren 15era bitarteko datuak bildu ditugu, bai eta 2019ko epe berdinekoak ere, informazioa kontrastatzeko moduan.

Horren harira, hauek dira **Udaltzaingoan** bildutako datuak:

ARRAZOIA	2019ko martxoak 15 - ekainak 15	2020ko martxoak 15 - ekainak 15	Igoera/jaitsiera portzentajea
Genero-indarkeria	35	37	% 5,71
TOTAL	60	67	% 1,67

Konfinamenduk iraun bitartean, Udaltzaingoak sexu-orientazioarekin eta genero-identitatearekin lotutako gorroto-delitu baten berri izan du; 2019an, berriz, ez zen bat bera ere izan epe horretan.

Genero-indarkeriari eta etxeko indarkeriari dagokionean, % 5,71 hazi da Udaltzaingoan genero-indarkeriagatik artatu dituzten emakumeen kopurua; beraz, ez da igoera nabarmena.

Bestalde, **udaleko Gizarte Zerbitzuen** datuei erreparatuta, gisa honetako egoerak murriztu egin dira:

	2019ko martxoaren 15etik ekainaren 15era	2020ko martxoaren 15etik ekainaren 15era
Genero-indarkeria	70	32

Zifra hori % 55 inguru murriztu da. Datu horri ñabardura batzuk gehitu behar zaizkio:

- Zifra horrek adierazten du zenbat espediente abiatu diren (bizikidetz-unitateak) gisa horretako arazoen harira epe zehatz horretan.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuetan jaitsi egin da arazoen erregistroa, baina zerikusia du alarma-egoerak ekarritako egoerarekin (instalazioen itxiera eta erasotzaileekin konfinatuta egotea).

Edozein kasutan, artatu diren kasuen edo kontsulten jaitsieraren oinarrian hainbat faktore egon daitezke, sakonki, osotasunez eta hainbat diziplinaren ikuspegitik aztertu behar direnak, beste eragile batzuekin batera, esate baterako, hirugarren sektoreko erakundeekin, elkarteekin –batez ere elkarte feministak, emakume-taldeak, LGTBI kolektiboak, indarkeria matxistatik bizirik atera diren pertsonen taldeak etab.– eta gaian eskumenak dituzten erakundeekin. Gainera, hurrengo txostenean aztertuko dugu ea, konfinamenduaren ostean, hazi egin den Gizarte Politika Sailak eta Udaltzaingoak artatu dituen kasuen kopurua, gaian adituak direnek iradoki duten eran.

Dagokion garaian egingo dugun analisi globala dela-eta, garrantzitsua iruditzen zaigu zera aipatzea: beharbada, emakumeen arrakala digitalak eragina izan du udaleko harrera-zerbitzuetara jotzeko orduan, izan ere, konfinamenduan, babes-kanpainak zabaltzeko modu gutxi zeuden; tartean behin, ikus-entzunezko materialak zabaltzen ziren, edo, modu masiboagoan, sare sozialak edo webguneak erabiltzen ziren.

Informazio orokor hori eman ostean, Gizarte Politika Sailak eman dituen datuei erreparatuko diegu:

Lehenik, hona hemen arazoak, bereizita:

ARAZOAK, BEREIZITA (GENERO-INDARKERIA)	2019KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15	2020KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15
Emakumearen aurkako tratu txar emozional/psikologikoa	40	17
Emakumearen aurkako tratu txar	31	14

ARAZOAK, BEREIZITA (GENERO-INDARKERIA)	2019KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15	2020KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15
fisikoa		
Bikotekide ohiak emakumeari emandako tratu txar psikologikoa	8	3
Emakumearen aurkako tratu material/ekonomikoa	7	2
Genero-indarkeria duten harreman sentimental errepikatuak	2	2
Emakumearen aurkako sexu-jazarpena eta larderia lanean eta beste toki batzuetan	1	1
Sexu-erasoa bikotetik kanpo	1	1
Tratu txar sexuala emakumearen aurka	3	1
Bizikidetzatza berriro hastea, genero-indarkeria egonda	3	1
Emakumeen trafikoa, esplotazio sexuala eta ekonomikoa egiteko	--	1
Adin nagusiko seme-alabek amei ezarritako indarkeria, genero-desberdinkeriagatik	--	1
Bikotekide ohiak emakumeari emandako tratu txar fisikoa	3	--
Segurtasun-indarrek baloratutako arrisku-egoera	2	--
GUZTIRA	70 (Oharra)	32 (Oharra)

Oharra: arazo bereizien batura handiagoa da genero-indarkeriari lotutako kasuen kopuru osoa baino, izan ere, kasu bakarrean talde bereko arazo bereizi bat baino gehiago egon baitaitezke.

Arazo bereiziei erreparatu ostean, amaitzeko, taula batzuk egin ditugu, kontuan hartuz taldekako herritartasuna, adina eta familia-mota, eta genero-indarkeriako eta etxeko indarkeriako kasuak ezberdinduz. .

HERRITARTASUNA (GENERO-INDARKERIA)	2019KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15	2020KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15
Espainia	44	12
Hego Amerika	10	9
Magreb	9	2

Afrika (Magreb ezik)	5	4
Europa	1	4
Asia	1	--
Erdiko Amerika	--	1
GUZTIRA	70	32

ADIN-TARTEA (GENERO- INDARKERIA)	2019KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15	2020KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15
13-17 urte	1	--
18-22 urte	1	--
23-30 urte	13	7
31-45 urte	33	16
46-64 urte	18	8
65-84 urte	4	1
Guztira	70	32

FAMILIA-MOTA (GENERO- INDARKERIA)	2019KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15	2020KO MARTXOAK 15 – EKAINAK 15
Nuklearra, seme- alabekin	18	14
Pertsona bakarrekoa	21	9
Guraso bakarrekoa	26	7
Nuklearra, seme- alabarik gabe	2	2
Beste batzuk	3	
Guztira	70	32

2020KO KONPROMISOAK BETETZEA, LEHEN SEIHILEKOAN ATZEMAN DIREN BEHARRAK ETA ETORKIZUNERAKO KONPROMISOAK:

2019ko txostenean ezarri ziren konpromisoen artean, hauek bete direla esan daiteke:

- Sailen artean datuak trukatzea (Gizarte Politika eta Herrizaingo Saila): horri esker, Vitoria-Gasteizko Udalak artatzen dituen indarkeria matxistako kasuen egiazko helmena ezagutu dugu.
- Indarkeria matxistari eta genero- eta sexu-aniztasunari buruzko prestakuntza eman zaie udal langileei eta Udalaren kontratu pean diharduten zerbituetako arreta zuzeneko langileei (120 ordu, egiaztatuak, 100 langileri). Gainera, Udaltzaingoak sexu-orientazioari edo genero-identitateari lotutako gorroto-delituei buruzko prestakuntza berezia egin du, eta lankidetzaz-lerroak osatu dira Berdintasun Zerbitzuaren eta Ikusgune LGBTI Behatokiaren artean.

Gainera:

- Prozesu bat abiatu da, eskumenak dituzten hiru sailen artean, honako protokolo hau berrikusi, eguneratu eta aldatzeko: Indarkeriaren aurrean esku hartzeko, bideratzeko eta jarraipena egiteko II. Udal Protokoloa.
- Vitoria-Gasteizko Udalak, Berdintasun Zerbitzuaren bidez, lankidetzaz-hitzarmen bat sinatu du Lumagorri elkartearekin; horren bitartez, Ikusgune sustatuko dute, Vitoria-Gasteizko LGTBI+ Behatokia, homofobiaren, lesbofobiaren, bifobiaren eta transfobiaren aurkako behaketa iraunkorra egiteko¹¹.

Etorkizunera begira, honako konpromiso hauek proposatzen dira:

- II. Protokoloa berrikustea, eguneratzea eta aldatzea, ezarritako helburuak betetze aldera.
- II. Protokoloa eguneratzeko prozesuan, datuak biltzeko eta erabiltzeko sistema berrikustea, hartara erregistroa eta kasuen sistematizazioa hobetu dadin eta eragin positiboa izan dezan atzemate-, bideratze- eta arreta-sisteman. Era berean, berrikuspen horren baitan, LGTBI pertsonen beharrak eta sexu-genero aniztasuna txertatu nahi dira.
- Instituzioetan, instituzioen artean eta sailen artean koordinazio-mekanismoak sortzea, indarkeria matxistari arreta integrala eskaintzeko helburuarekin.

¹¹ <https://ikusgune.eus/>